



BARREN
TOKIKOM

Txaranga, Mendaroko bizi poza



IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HH 0-1eko matrikulazio aldia zabalik maitzaren 16tik 27ra

HH 0 (2016an jaiotakoak) iraillean eta urrian hasteko.

HH 1 (2015ean jaiotakoak) iraillean hasteko.



elgoibar ikastola



www.elgoibarikastola.eus

943 744441

IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen bilera maitzaren 16an, 18:00etan



ELGOIBARKO ELKARTE eta ERAKUNDEENTZAT:

PARTE HARTU NAHI AL DUZUE AURTENGO
Euskarak 365 Egun EKIMENEAN?

Abenduak 2, ostirala
Maalako parkean, 14:00etan hasita

Iazko arrakasta Itzelaren ondoren, aurtien ere kalera irtengo gara elgoibartarron euskaltasuna aldarrikatzera.

Ekimen parte-hartzailea izango da, eta jai-giroan esango dugu euskaraz bizi nahi dugula.

Animatu eta parte hartu! Plazera plazara!

Izena emateko: 943 74 16 26 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
Azken eguna: maitzak 30

Antolatzailea: Elgoibarko Euskarak 365 Egun ekimeneko talde-eragilea

IMH



**GOI ETA ERDI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK**

**INGENIARITZA DUALEKO
UNIBERTSITATE GRADUA**

IZAN AL ZARA INOIZ IMHn? ZATOZ ETA EZAGUTU GAITZAZU!



Informazio saioa: Maitzak 21, 11:00 etan

www.imh.eus / Bertaratzea baieztatu 943744132 tfnoan (Amaia Ansola)



IBON SERRANO LASA



“Tomatinaz pareka daitezkeen jaiotan, burrunbada etiliko mugagabeen murgiltzen gara”

Arkadi, ekaineko solstizioa igaro eta konturatu orduko udazkenaren atarian gara, eguna dezente moztua, goibeldua eta laino ilun samarrez estalia. Baina gaitzerdi elgoibartarroi, *Sanbartoloak* baitauzkagu abuztuko azken argi izpi.

Dakizunez, Murtziako Tomatinaz pareka daitezkeen jaiotan, *herritarrok, alberdanian horditurik, ardo eta izerdiz blai, Antsokixote-Kixoteantso* koreografiaren hipnosiaz zorabiatuak, burrunbada sikodeliko eta etiliko mugagabeen murgiltzen gara.

Maleruski, inertzia eta utzikeria medio, ospakizunaren zergati eta jatorriaz deus jakin ez eta, zurrumbilo dionisiako honek ez al gaitu irensten errazegi, sarriegi? Izan ere, non da izpiritualtasuna haragiaren bakanal honetan?

Bada, gabezia honetaz jabetua, gure patrioiaren estampa bat lantzerantz animatu naiz herritarronganako bokazio zerbitzuaz:

“Done Bartolome edo Nathanael, Nazaretoko Jesusen 12 apostoluetako bat dugu. Zesareako Eusebiok dioskunez Indiarraino eraman zuen ebanjelioaren predikua. Penintsula indogan-

getikotik itzultzean, kristautza Armenian ere zabaldu omen zuen, Artiages erregeak krudelki sufrikarioan bizirik larrutu omen zuen arte; erran nahi baita, errezeloz zekusala bere anaia Polimio printzearen kristautzea. Heriotza krudel honen lekuko Elgoibarko parrokiako erretablo landua eta Bartolome zapatari eta larrugileek gurtua izana.

Voragineko Santiagok bere izaeraz izkiriatu zigun: Garaiera arrunta, ile beltz kiribildua, larruzal zuria, begi ederrak, sudur zuzena, bizar sendo amiñiki urdindua, aldarte alaia. Maitasun zerutiarraren esperoan tentazio mundutarretatik at mantendu omen zen Bartolome; hau gutxi balitz, bizitza bere merituetan baino, jaungoikoaren grazia zein errukiaren esku utzi zuen”. Iturria: www.radiomaria.es

Oraindik galderak dauzkadan arren (noiz heldu zen Bartolome Elgoibarrera, non ikasi zuen euskaraz, zein didaktikaz kristautu gintuen...); ez duzu uste ekarpen txiki honek osotasuna eman al diezaiokela ospakizunera gerturatzeko moduari? ... bai? Arkadi? ...hor al zaude?



ARKAITZ IRURETA ARRIETA

“Hainbat urtetan Txiki Egunezik ihes egin dot”

Ozta-ozta! Energiak materia ekarri omen zuen, eta masa energia da Einsteinen esanetan. Zure masak energia ikaragarria askatzen du eta horri eskerrak mundua nola sortu zen zuzenean ikusten dut bihileror, kar kar. Ondoren sortuko ziren solstizio eta abarrak.

Zu ere arruntarrunta ez zera Elgoibarren, baiña uste dot ni ere ez naizela “montoikua”. San Juanekin batera, nere pozerako, eguna moztu eta gaba luzatzen hasten da. Negua udari irabazten hasten jako eta eskixak jartzeko atzerako kontaketa hasten da.

Eta bide horretan badagoz mugarrizak, Elgoibarko jaiak kasu.

Pertsonalki oso kritikoa naiz egutegi erlijioso eta politikuekin. Zergaitik hartzen ditugu oporrak konstituzio, aste santu edo gabonetan esaterako?

Horrek beste Z-B baterako emango liguke, eta zuk zabaldu tako hariara bueltatzen, sekretu bat konfesatu bihar dizut: hainbat urtetan Txiki Egunezik ihes egin dot.

Askok traizio bezela bizi dabe, eta sarri halakuak entzun bihar izan ditud gainera.

Baiña ihes egititak ez dau esan nahi egun hori galdu izan dotenik, beste zerbaitetan aprobeztatu dotela baizik. Hondartzan ikusi izan ditud ni moduan egun horretatik ihesi jua diranak (lasai, ez ditud izenak publiko egingo!). Halere, San Bartolome gabari gordetzen diot oroitzapen berezixena. Oso jende gutxiko gaba izaten zan, ekaitzaren aurreko bareunia. Txiki eguna bizi ez dabana, eta despistaturen batzuk batzen giñan Elgoibarko kalietan, ordu txixak arte. Baiña egixa esan, zure ekarpena irakurri arte ez nakixan elizan daguan larrututako hura nundik iritsi zan, ez eta zer ospatzen genduan gaba berezi hartan ere.

Eta orain beste zalantza bat etorri jata, hainbeste energia mugiarazten daban *Santxokixoteren* abestixa noiz eta nolatan iritsi zan guregana ez dakit datatuta egongo dan. Ausartuko zinateke aztertzerako?

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Software askea

tetik, Linus Torvaldsek, "hobby moduan", Linux sistema eragile nukleoa garatu zuen.

Bi hauen baturatik sortuzen GNU/Linux sistema eragilea (askotan "Linux" bakarrik deitua).

Software mota honek abantaila handiak izan ohi ditu: nabarmena, prezioa: Linux debalde den bitartean, Windowsek ehunka euro balio ditzake.

Kasu batzuetan SW pribatua "hobea" bada ere, alternatiba librearekin nahikoa izaten dugu. Esate baterako, lau taula egiteko ez dago Office pakete osoa ordaindu beharrik, LibreOffice erabiltzea

nahikoa litzateke. Beste adibide bat: Zertarako ordaindu Photoshop (900 euro baino gehiago), GIMP debalde izanda?

SWarekin arazorik badaukagu, bestalde, komunitate zabalak izaten ditugu lantzeko prest eta, gainera, norberak konpondu, moldatu edo hobetu dezake SWa. Honexegatik ere, normalean oso sistema seguruak izaten dira eta bizirapen luzeagoa izaten dute.

Gaur egun, uste dena baino askoz gehiago erabiltzen da software askea. Non? Interneteko zerbitzarietan gehien erabiltzen den sistema eragilea da Linux (bai, egunero begiratzen ditugun webgune guzti horiek norbaiten ordenagailuetan daude gordeta). Eta webgune asko eta asko, barren.eus bera ere, SW askeko plataformetan oinarritzen dira. Ordaindu beharra balego, akaso ez genuke Elgoibarko berririk internet bidez jasoko.

Ordenagailu pertsonaletan gutxi erabiltzen den arren, eskuko telefono gehienetan (estatuan %85 inguru) darabilgun Android sistema Linuxen oinarritua dago.

"Interneteko zerbitzarietan gehien erabiltzen den sistema eragilea da Linux"

1971: Richard Stallmanen lantokiko inprimagailuak lankideei arazo asko ematen omen zizkiela eta, aparailuaren ekoizleari inprimagailuak zerabilen kodea eskatu zion, berau hobetu asmoz eta trukean ezer eskatu gabe. Ezezkoa jaso zuen. Egoera honek bultzatuta lana utzi eta, 1983an, GNU proiektua abiarazi zuen, guztiz libre zen sistema eragile bat garatzeko asmoz. Bi urte geroago, 1985ean, sortu zituen Free Software Foundation delakoa eta Copyleft-en definizioa. Beste alde ba-



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
 Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuiztak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriando, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
 1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ GIPUZKOA OSOAN 225.000 ESKU-ORRI BANATUKO DIRA

Asteburu honetan, maiatzaren 14 eta 15ean, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak Gipuzkoa osoan buzonaketa berezi bat egingo duela jakin dut. Dagoeneko herrietan omen daude banatu dituzten 225.000 esku-orriak eta dena prest dute herrialdeko buzoi guztietara iristeko. 600 lagunek hartuko dutela parte aurreikusi da. Indar erakustaldi ederra, bai horixe! Garbi dago ekimen honekin erraustegiaren arduradun politikoei mezu argi bat bidali nahi zaiela: komunikabide handietan, publiko zein pribatuetan, ezarria duten kontrol informatiboaren gaintetik, ezkutatu nahi dituzten egiak Gipuzkoako txoko guztietaraino eramatea. Batzuek entzun nahi ez dituzten egiak eta ebidentziak herritar guztiengana, banan-bana, iritsiko dira, Elgoibarrera ere, noski.

Buru duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi.

A.I.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn en dozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Guadalupe Mugica Iturzaeta

2016ko maiatzaren 10ean hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Esther Etxeberria Mendizabal

2016ko maiatzaren 7an hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Udalak 183.000 euroko laguntza emango dio Elgoibarko Izarrari

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak 2016ko diru-laguntza hitzarmena sinatu zuten martitzen eguerdian. Ane Beitia alkateak eta Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentek izenpetu zuten. Horren bitartez 183.000 euroko diru-laguntza jasoko du Elgoibarko Izarra elkarteak, euskara sustatzeko eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko.

Elgoibarko Udalak 183.000 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteari 2016an euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko. Aurten ere, bi udal sailetatik bideratuko da diru-laguntza. Elkarrekin 123.000 euro jasoko ditu Udaleko Euskara Batzordetik eta 60.000 Haur eta Gazteen Sustapenerako Batzordetik.

Lokalak erabiltzeko hitzarmena

Elgoibarko Udalak merkatu plazako lau lokal lagako dizkio Elgoibarko Izarrari, Atxutxiamaiaka proiektuko hainbat programaren ekintzak burutzeko (Bertso Eskola eta Berbazulo besteak beste). Gainera lokal horiek Elgoibarko Izarraren biltoki eta artxibo betebeharrak bilduko dituzte.

Eskerrak

Iñaki Konde Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko presidentek eskerrak eman zizkion Elgoibarko Udalarari, "eskaintzen digun laguntzarengatik". Bere esanetan, "Udalaren laguntza ezinbestekoa da Elgoibarko Izarraren proiektuak gauzatzeko, eta, aurrerantzean ere, bide beretik segitzeko asmoa azaldu nahi dugu. Izan ere, gure ustez, ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haurrentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu, eta euskara eta euskal kultura gure herrian sustatu nahi baditugu".



Elgoibarko Izarrako eta Udaleko ordezkariak hitzarmenaren sinadura ekitaldian.

EUSKARA BATZORDEAK	DIRU-LAGUNTZA
HEDABIDEAK - BARREN astekarria - barren.eus - Ahotsak egitasmoa	60.100 €
AISIA-erabilera - Familia transmisioa - Eskolaz kanpoko eragileak - Berbazulo - Nerabeen plan integrala - Bertso-Eskola - Tertuliak egitasmoa	52.500 €
BESTELAKOAK - Gabonetako bertso jaialdia - Santa Ageda 2016 - Nazio mailako ekimenak - Udazkeneko kultur eskaintza - Euskararen nazioarteko eguna	10.400 €
GUZTIRA	123.000 €

GAZTERIA BATZORDEAK	DIRU-LAGUNTZA
ATXUTXIAMAIIKA EGITASMOA - Ekintzak - Formazioa - Gastu orokorrak - Pertsonal gastua	41.837 € 350 € 3.823 € 13.990 €
GUZTIRA	60.000 €

Antton Alberdik eskuratu du CAF-Elhuyar saria, doktore-tesian oinarritutako dibulgazio artikuluko bategatik

Eguazten arratsaldean banatu zituzten CAF-Elhuyar sariak. Antton Alberdik elgoibartarrak egilearen doktore tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluaren saria eskuratu du, *Non hegoa, han zangoa: saguzar belarrihandi alpetarren arrastoari jarraika* izeneko lanagatik.

Antton Alberdik (1987), EHU-n Biologia ikasi ondoren, saguzar belarrihandi alpetarraren ekologiaren eta eboluzioaren inguruan egin zuen tesia, 2014an. Gaur egun, Danimarkan dihardu antzinako DNA erabiliz glaziazio osteko Europako saguzarren ekologiaren berreraiketa egiten, eta animaliak inguruneke aldaketetara egokitzean hesteetako mikroorganismoek duten eragina ikertzen.

Alberdik galdera sorta bat planteatu zuen tesi hasieran: "Zer-gatik dago saguzar hau, gainerako guztiak ez bezala, goi-mendi lotua? Non gordetzen ote da animalia hori? Non ehizatzen ote du? Zer tenperatura jasan ote ditzake? Zer jaten ote du?". Galdera horiei erantzun zien tesian eta dibulgazio artikuluan ikerketaren emaitzen berri eman du. CAF-Elhuyar sarietako epaimahaiaren iritziz, alderdi teknikoak ere erraz azaldu ditu; gainera, erabili dituen irudiak oso lagungarriak eta aproposak dira epaimahaiaren arabera.

Alberdik 2.000 euroko saria eta Imanol Andonegi Mendizabal



balen eskultura jaso zuen eguaztenean egindako sariketan, Tabakaleran. Antton Alberdik gain, Xabier Artaetxebarria (Donostia, 1982) eta Edu Larzaguren (Eibar, 1969) izan ziren beste bi sarituar. Lehenengoak dibulgazio artikuluko onenaren saria jaso zuen; bigarrenak, berriz, zientzia-kazetaritzaren saria. Bestalde, Enrique Hurtadori (Sodupe, 1973) sorkuntza beka eman zioten.

LED argi gehiago jarriko dituzte Elgoibarko zenbait kaletan

Elgoibarko hainbat auzo eta kaletako argiztapen sistema publikoa aldatzen dihardu Elgoibarko Udalak, eta, aurrez erdiguneko zenbat gunetan egin zuten moduan, LED argiak jarriko dituzte orain San Roke, Arregitorre eta San Frantzisko kaleetako faroletan.

Udalak kasko zaharreko argiztapena berritzeko proiektua jarri zuen abian 2015ean, energia eraginkorra eta errentagarria sustatzeko asmoz. LED teknologiadun argiak jarri zituzten erdigunean: Kalegoen plaza, Giza eskubideen parkea, bolatokia, frontoia, arkupeak, elizpea, Santa Anaren parte bat, San Bartolome eta Errosario kaleetan. Guztira 77 argi puntu jarri zituzten. Lehendik zeuden 66 argi puntutan argiteria zaharkitua kendu eta LED lanparak ipini zituzten. Leku batzuetako argi maila hobetzeko 11 puntu berri jarri zituzten, horiek ere LED argiekin. Inbertsioa 33.000 eurokoa (BEZ kanpo) izan zen.

Argi berriekin kontsumoan aurreztea lortu dela azaldu du Iosu Arraiz zinegotziak. "Joan den urtearekin konparatuz (hiruhilabetekoa) lortutako batezbesteko energia kontsumo aurrezpena %32koa izan da, 8.000 KW/urteko eta 5,2 tona CO2 saihestuz", adierazi du.

Errigoraren kontserbak eskatzeko kanpaina, maiatzaren 24ra arte

Errigora ekimenak atzo (eguna) zabaldu zuen urteroko kontserben kanpaina. Nafarroako Hegoaldeko produktu horiek eskuratu nahi dituzten elgoibartarrak maiatzaren 24ra arteko epea izango dute. Elgoibarren banaketa ekainaren 8ko arratsaldean egingo da, Merkatu Plazan.

Eskaerak errigora.eus webguneko formularioa beteta egin ahal izango dira. Era guztietara, Elgoibarko Errigorako taldeko kideak ohi bezala kalean izango dira datozen egunotan produktuak erakusteko, zalantzak argitzeko eta eskaerak bideratzeko.

Errigoraren kanpaina honek Nafarroa hegoaldeko produktuak gure eguneroko kontsumo ohituratara ekarri nahi ditu. Batetik, ekoizle arduratsuek eta kontsumitzaile arduratsuek elkartu nahi ditu, euskarari arreta berezia jarrita. Orain arte, 60 herritan 5.000 etxek parte hartu dute.



Bizia eta poza doinuz



1991n hamabi lagun irten ziren lehen aldiz txarangarekin.

Bizi Poza, Mendaroko txaranga. Giro bizia zabaldu eta poza banatu dute herrian eta herriko musikariek joan deneko 25 urteotan. Lagun talde batek hasitako bideari segi diote mendarorrek jaietan eta horietako batzuek baita tresnaren bat hartu eta txaranga jo ere. Urteen joan-etorrian badira txaranga hasi eta urte batzuk igarota utzi zutenak, orain dela gutxi lagatakoak, ia hasieratik daudenak eta jarraitzen dutenak eta baita hasi berriak ere. Askotariko doinuak jotzen ditu Bizi Poza txarangak eta hango partaideek ere kontu asko dituzte doinuz ez ezik berriekin esateko. Txarangaren sorreran izan ziren Asier Landa eta Aitor Motriko eta honen seme Josu da Bizi Pozan urterik gehien eman dituenak hamarrekin hasi eta oraindik saxofoia jotzen jarraitzen duena.

- IRATI AGIRREAZALDEGI-

Turu turu tu tu tu... txaranga doinuen adierazgarri dira askotan. Turutetatik datoz hots horiek eta Mendaroko Bizi Poza txarangaren ideia ere hori izan zen. Txaranga baino lehen kuadrilla bat hasi zen San Jose plazan zezentxoak zeuden bitartean harmailetan turutak jotzen. Hori ikusita, zertxobait gehiago egokia izango zela iritzita, Udalera ko zuten proposamenarekin. Udalarri ideia ona iruditu eta instrumentuak erosteko laguntza eman zien. Asier Landa izan zen txarangaren sorreran parte hartu zutenetako bat eta gogoan du instrumentuak erostera joan zireneko hura. "Udalak 500.000 pezeta eman zizkigun, eta, zenbat instrumentu behar genituen pentsatuta, Gasteizera joan ginen txaranga musikan aditua zen baten dendara. Sekulako musikatresna zerrenda bota genion: bi tronpeta, bi saxofoi, saxofoi altua, bonbardinoa, lau klarinete... Zenbat diru geneukan gal-

detu eta kopurua esan genionean erantzun zigun hori esandako tresnetako on batek balio zezakeela. Ezer erosi gabe alde egin eta bueltan sekulako parranda egin genuen. Azkenean Ermuko denda baten bitartez erosi genituen talde bat sortzeko adina instrumentu. Auskalo ze markakoak eta nondik ekarritakoak ziren". Aitor Motriko, txarangaren hastapenetako kidearen ustez, "garai hartatik hona musika tresna kontua asko aldatu da. Txinatik eta Taiwanetik asko ekarri zituzten orduan, baina kalitaterik gabekoak. Denborarekin kalitatea eta prezioa neurrikoagoak dira".

Zuten apurrarekin baina jai eta musika gogoz 1991n hasi ziren txaranga. Asierrek eta besteren batek solfeoa ikasten zuten eta gainontzekoei oinarritzko gauzak irakatsi zizkieten. "Laguntza asko jaso genuen Debako bandatik. Bandako entsegua bukatu ondoren ordu erdiko saioa egiten zuten gurekin. Tronboia jotzen

zuenak, esaterako, ez zien tronboidunei bakarrik irakasten ahokopieza bertsua zuten tresnak jotzen zituztenei baizik. Aitorrek ere txarangan hasi zenerako bazuen musika jakintza, gure aldean 'profesionala' zen. Mauxitza etorri zen jaietan eta harrituta gelditu zen gehienek inolako solfeo ikasketarik gabe txarangan jotzen zutela ikusita", dio Landak.

HAMABI LAGUN HASTEKO

Jaietan kaleak musikaz bizitu zituztenak lehen urtean hamabi lagun izan ziren. Saxofoiak, klarineteak, bonbardinoa, tronpetak, tronboia eta perkusioa. Soinujoleak ere gehitu zitzaizkien indartzeko. Asierren esanetan, "kuadrillakoak ez ginen denok, baina lagunak bai, adin bertsukoak 2-3 urte gora behera, jai girorako prest geundenak, noski. Bikoteak ere baziren taldean, txarangara ere elkarrekin animatu zirenak".

Josu Motriko hamar urte zituela hasi zen aitaren arrimuan eta gaur egun bera da txarangan denbora gehien egin eta jarraitzen duenetako bat. "Azken urteotan partaideak nahiko finkoak gara oinarrian eta gure arteko giroa oso polita da. Hasieran nagusia goek utzi eta gazteak sartzen ziren, baina zortzi urte-edo badira berdintsuak gaudenak. Kantu berriak ikasteko ere zenbat eta trinkotasun handiagoa eduki hobea". Aitorrek ere beti azpimarratu izan du "zein polita den taldean jotzea, terapia modukoa. Bakarrik motz gelditzen gara". Txarangan agian jarraituko lukeela dio, "baina suabeago. Abesbatzako zuzendaritza ere hartu dut eta zuzentzea gutxieneko da, norberak prestatu eta besteei erakustea da kontua". Asierrek ere kanpotik sumatzen du txarangan gaur egun dagoen giroa eta poztasuna, baina asteroko entseguak eta konpromisoa gehiegitxo omen dira berarentzat.

Txarangan batzuk joan direnez, berriak ere behar dituzte Bizi Pozak luze iraungo badu, eta berriak erakartzeko badute modurik. "Musika eskola sortu zenetik txarangako taldetxo batek emanaldi bat egiten du ikasleentzat. Jendea txarangarantz erakartzea da asmoetako bat. Hala ere, batik bat gu joan izan gara bila. Irakasleei ere galdetzen diegu ea zein izan daitekeen gurekin jotzeko moduko ikaslea eta gonbidatzen ditugu, baina ikasle asko egon dira bi-hiru urte musika eskolan ibili eta guk kolpe egin aurretik utzi dutenak. Noiz edo noiz gurasoren bat ere etorri izan da seme-alabak sartu al daitezken galdetzka", dio Josuk.

'DIANA DE SAN FERMIN' MAKINA BAT ALDIZ

Partaideak bai, baina jo beharreko piezak erabakitzea ere ezinbestekoa da, noski. Txarangakoek gogoan dute hasieran hamalau pieza ikasi zituztela. "Gainera ez geneukan kanpoan kontakturik partiturak lortzeko. Ez zegoen orain interneten aurkitzeko dagoen adina erraztasun", dio Aitorrek. Asierrek ikusten zuen partituraren bat edo beste, "baina solfeo ikasi gabekoei nola eraman haiek ikasteko. Solfeo jakinda ere pila bat aldiz begiratu behar izaten genion paperari, ba pentsa". Beraientzat berezia den pieza bat zein den galdetuta hirurek berbera esan dute: *Diana de San Fermin*. Josuk esan duenez, "hori izan zen lehena eta sekulako lata ematen genuen kantu horrekin. Orain beste erritmo batean jotzen dugu eta *La Gacela* esaten diogu". Gaur egun denen artean aukeratzeko dituzte kantuek eta urteak aurrera joan eta taldearen maila hobetu arren entseguetara ekarritako kantuek batzuk probatu eta beraientzako modukoak ez direla ikusita albora lagatzea ere erabakitzen dute. Aitorrek dio piezak egokitu egin behar direla txarangan dagoen mailara eta baliabideetara. "Horreta-



Lehen jaietan baino ez zuen jotzen Bizi Pozak, gaur egun urtean hitzordu gehiago ditu txarangkak.

rako Inaxio Salegiren laguntza handia jaso izan dugu. Orain Urretxun bizi den mendarorak han banda eta txaranga jotzen du eta bokazioa behar da horretarako. Ahal duenean oraindik ere etortzen da Mendarora tubarekin”.

Hasierako lagunetarik ez du inork jarraitzen, bigarren urtean sartutako batzuek salbu. Gaur egun dihardutenetan 13 urte ditu gazteenak eta 48 nagusienak, hala ere, urteurrena ospatzeko urteotan ibili diren denak elkartzea zen helburua, eta penaz, baina batzuek kale egingo dutela jakin dute. “Pasatutako jendeari abisatu diogu baina zaila izango da denok elkartzea 50-55 ibili gara eta 35 inguru bilduko gara bazkaritan. Ospakizun honetarako nahi dugu lehen txaranga ibilitakoek jotzea eta badira baiezkoa eman dutenak. Kantuetan, berriz, batzuk orain ere jotzen ditugu, eta hasierako beste batzuk utzita dauzkagun arren asmoa da zapatuan berriz jotzea lehenengo urtean jotakoak”, dio Josuk.

MENDAROTIK KANPO GUTXITAN

Zapatuan Mendaron egingo dute ospakizuna etxeko txaranga baita Bizi Poza eta herritik apenas ateratzen dena. Azken urteotan Elgoibarren, Nazioarteko Mugerza Krosean jotzen dugu, baina “kanpora joateak konpromisoa eta asko jardutea eskatzen du, eta horretarako prest egon behar da”, dio Josuk. Etxean, baina nagusien danborradan jotzea izan da Bizi Pozakoen ilusioa Aitorren esanetan, “baina konturatzen ginen gutxi ginela, motz gelditzen ginela. Orain ere Elgoibarko Mauxitxakoak etortzen dira eta guk umeekin jotzen dugu”. Kontuan hartu behar da gainera Bizi Pozako askok danborradan jotzen dutela, baina ez txarangarekin, jakina.

Hasieran Santa Ana jaietan baino ez zuten jotzen eta ez zien hainbeste gogo eragiten urte guztian entseatzea jaietan hiru aldiz baino ez jotzeko, beraz, Udalean planteatu zuten udazkenean

Bizi Poza 25 urte



ZAPATUA, MAIATZAK 14

10:00 Diana Elgoibarko dultzaineroekin, Azpilgoetatik.

11:00 Hamaiketako txaranga partaide izandako guztientzat Aitz Beltzen.

12:00 Kalejira Bizi Pozarekin. Aitz Beltzetik.

15:00 Bazkaria, Luzaiden.

19:00 Poteoa, Los Incansables txarangarekin. Herriko Enparantzatik.

23:30 Erromeria, Bide Batez taldearekin Herriko Enparantzian (euria eginez gero frontoian).

Santa Zeziliaren aitzakian irtetea, Gabonetan, Inauterietan, Trinitateetan eta beste hainbat saio ere egiten dituzte urtean barrena. Josuk dio deitu izan dietela noiz edo noiz kanpotik, baina konpromiso handia dela beste inoren eskariz egitea. “Jaietan goizaldean ibili izan gara txaranga batzuk parrandan jotzen, baina gure kasa eta hori ez da gauza bera”.

Asierrentzat lagun kuadrilla bat izan da txaranga eta gazteagoak sartu zirenean ere beti egon da giro ona beraien artean. “Niretzat gozatzeko gauza bat izan da. Orain jotzen ez dudun arren entzun ahala sekulako enbidia ematen dit, baina jendeak ez du atzeko lana ikusten”. Aitorrek izan du hainbat urtetan arduradun lana, baina “gustura egin dudun lana. Orduak behar dira, ezkutuko lan asko dago partiturak prestatzen. Konplikazio asko dituen partiturak moldatu egin behar dira...”. Josu gazteen hasitakoa da eta orain zaharretarikoa, beraz, txaranga bere bizitzaren parte dela dio. Zapatuan, beraz, urte hauek guztiak musikaz gogoratuz Bizi Pozak herria girotuko du beraien arteko giroarekin.



Astero egiten dute entsegua eta martitzenekoa berezia izan zen zapatukoa prestatzeko.

Sebas Etxaniz adinean aurrera doala eta, herritarrengana jo dute lagunek eta senideek babes bila, aske laga dezaten



Alberto Etxaniz lehengusua, Tere Etxaniz arreba eta kuadrillako Juan Bautista Izagirre.

Sebas Etxaniz presoaren lagunak eta senideak ate-joka dabilta azken egunotan. Haren adinekoengana eta noizbait harekin harremanen bat izan duten elgoibartarrengana jo dute. Adinean aurrera doala eta, kaleratu dezaten eskatzeko kanpaina jarri dute abian. Datorren barixakuan, maiatzaren 20an, 19:00etan, Kalegoen Plazan aterako duten argazkira gonbitea egiten ari dira. Argazkian adineko pertsona bat kartzelan dagoela eta kalean egon beharko lukeela irudikatu nahi dute.

Etxanizek azaroan 73 urte egin behar ditu. Legediaren zenbait atalek agintzen dute adineko presoek, 70 urtetik gorakoek, kalean egon behar dutela.

Tere Etxaniz arreba, Alberto Etxaniz lehengusua eta kuadrillako Juan Bautista Izagirrek dei egin diete Sebas Etxanizen lagunei, harekin hartu-eman izan zutenei eta haren adinekoei argazkian agertu daitezzen, izan pentsamendu politiko bate-

koak izan bestekoak. "Elgoibarren bizi zenean jende askorekin zuen harremana, batez ere mendizaleekin. Mendian asko ibiltzen zen". Berarekin harremana izan zutenengana jotzen ari dira, eta argazkira azaltzeko eskatzen ari zaizkie.

Etxanizek gaztetan alde egin zuen Elgoibartik. Nikaraguan urte batzuk eman ondoren, 1993ean estraditatu zuten eta kartzelan hiru urte eman zituen. Aske gelditzean Venezuelan bizi izan zen eta handik ere estraditatu egin zuten 2002an. ETAKoa izatea eta 1981 eta 1982ko atentatu batzuetan parte hartu zuela leporatuta, 95 urteko kartzela zigorra ezarri zion epaileak.

Sebas Etxanizek 14 urte daramatza preso. Valdemoro, Soto (birritan), Carabanchel, Castello eta Villenako kartzelatan egon da urrunduta. Azken sei urteak Villabonako kartzelan eman ditu, Asturiasen.

Tere arrebari luze egiten ari zaio esperroa. "Bera ateratzeko esperantza handia

neukan lehen, baina orain...", dio. Etxanizen osasun egoerari buruz galdetuta, "ondo dago", azaldu du, "argal-argala dago, kirol asko egiten du eta. Zapatilla asko apurtu ditu".

Sentsibilizatzea

Jendea sentsibilizatzea garrantzitsua dela iritzita, "bere adineko jendeari eta ezagunei eskatzen diegu argazkira etortzeko", esan dute. Gaineratu dute, ETArein jarduera armatua betirako amaituta, etorkizuna giza eskubideetan oinarrituta eraiki behar dela. Familiak eta lagunak diote "mendekuagatik" jarraitzen duela preso, 70 urte beteak dituen arren. Hala ere, ideologia desberdineko jende askoren babesa sentitu dute, eta eskertuta daude.

Martxoan, gaixorik dauden presoak eta 70 urtetik gorakoak aske lagatzeko eskatu zuten Gasteizko, Iruñeko, Donostiako eta Errenteriako alkateek.

Sustraien sentimena ospatuz

Haien sustraiak Galizian dituzten elgoibartarrek urteroko jaia antolatu dute asteburu honetarako. Berez, aurten ez dago nobedade handirik aurreko urteetako egitarauarekin alderatuta. Jaien aitzakiaz, baina, Elgoibarko Casa Cultural de Galizaren historiari buruzko errepaso txiki bat egin dute elkarteko bi kidek, Camilo Otero presidentea eta Gumersindo Vilak. Makina bat kontu aipatu dituzte: elkartea zelan sortu zen, lehengo jaien eta oraingoan arteko aldea, zaharren eta gazteen arteko harremanak, eta gogoan dituzten momentu hunkigarriak, besteak beste.

- OIER NARBAIZA -



Camilo Otero eta Gumersindo Vila, Arturo Andraderen eskultura ondoan.

Eskekrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari, bera gabe ezin izango baikenituen jai hauek antolatu. Hori esango nuke lehendabizi”, adierazi du Camilo Oterok, Elgoibarko Casa Cultural de Galiza elkarteko presidentea. Jaien berri ematera etorri da, BARREN-era, Gumersindo Vila bazkidea lagun duela. “Denek laguntzen digute eta ez balute lagunduko, ez legoke jairik”, uste du Oterok.

Azken hilabeteetan jaian antolakuntzan buru-belarri ibili direla azaldu du Oterok. Normalean zuzendaritza urtarilean aldatzen dute, eta lehen hilabeteak egitaraua lotzen pasatzen dituzte. Hilabete lehenago, gutxi gorabehera, dena lotuta izan behar dute egitaraua argitaratzeko.

Gastuei aurre egiteko tentuz begiratu behar izaten diote diruari. Diru-laguntzak ez dira garai batekoak. “Beste munduko egitaraua antolatzeko ez dago marjin handirik. Egia da jubilatuko asko dagoela gurean, baina egunean zortzi orduz ari gara besteek lanean!”, Gumersindo Vilaren esanetan.

Urtero, elkarrekin antolatzen dituen ekintza guztietatik, ga-

rrantzitsuena da Semana das Letras Galegas, eta lan handiena ematen diena. Gaur egun zuzendaritzan dauden kideak aritzen dira antolatze lanetan batez ere. Elkartea 1978ko uztailaren 31an sortu zutenetik ospatu dute urtero Semana das Letras Galegas.

“MORRIÑA SENTITZEN GENUEN”

Camilo Otero, presidentea, elkartea sortu zuten 37 bazkideetako bat da. Adin diferenteetakoak ziren, batzuk gazteagoak eta beste batzuk zaharragoak. Haietatik, Camiloz gain, beste lau geratzen dira. Gaur egun 49 bazkide ditu elkarrekin (gehienez 50 izan ditzake).

Fundatzaileak sortzez galziarrak ziren, Elgoibarrera etorriak bizimodu hobe baten bila. Hemen lan eta bizi arren, “morriña sentitzen genuen”, adierazi du Camilo Oterok, “horregatik sortu genuen elkartea”. Ez zeuden haien jatorria eta sustraiak ahazteko prest, eta elkarlanari ekin zioten.

“Lehen goian ospatzen genituen jaiak, Urazandin. Jende gu-

txiago etortzen hasi zenean eta olagarroa jan eta ospa egiten hasi hasi zirenean, hona behera etorri behar izan genuen. Jaia jendearengana ekartzeko. Askori urruti gelditzen zitzaien”, adierazi du Gumersindo Vilak. Lekuz aldatzeak modu politean eusten lagundu die.

Semana das Letras Galegasen hasierako urteak eta oraingoak ezberdinak dira, oso. Lehen, bazkide asko inplikatzaren ziren, “%70 bai behintzat”, eta haiek arduratzen ziren olagarroa prestatzeaz. “Lehen lan asko egiten genuen elkarteko bazkideek baina ez genuen jaietz gozatzeko denborarik, lanean genbiltzalako”, azaldu du Gumersindo Vilak. Hala ere, gustura jarduten zutela aitortu du.

ALDAKETAK

Orain, ordea, beste modu batera antolatzen dute dena. Zuzendaritzan dagoen taldeak hartzen ditu bere gain antolatutako bazkariak eta Galiziatik etorritako gaitajoleen jatorriak. Eta herritarrei eskaintzen zaien olagarroa bazkideek egin beharrean enpresa batek egiten du orain. “Horrela bazkideek jaietz gozatu dezakete”, dio Gumersindok. Hala ere, Camilok uste du egunen batean jaia lehen bezala antolatu beharko dela, baina horretarako bazkide gazteenen erreleboa eta inplikazioa bermatu beharko da.

Azken batean, denboraren poderioz, elkartean aldaketa sakona gertatu da. Bazkide fundatzaileak Galizian jaiok baziren, orain asko eta asko haien ondorengoak dira. “Gaztegoek haien sustraiekiko beste atxikimendu bat dute, ezberdina, hemen jaiok baitira eta hemen egin baitute bizimodua. “Eta hirugarren belaunaldia bidean dator”, ohartarazi du Gumersindok. Era guztietara, ez dute nahi Casa Cultural de Galiza elkartearen soziedade arrunt bilakatu dadin, eta espero dute sustraien sentimenari lotuta jarraitzea.

Semana das Letras Galegasek zer etorkizun izango duen jakin gabe, argi dute Magosto jaiak luzaroan iraungo duela. Alde batetik, askoz ere lan gutxiago baitu gaztainak erretzeko eta bizilagunen artean banatzeak. Bestetik, eskualdeko Gaztainerre jaiarekin antz handia izanik, oso harrera ona du jendearen artean. “Gaztainerre zenbat gose kendu ote duten! Hori ospatzen dugu”, dio Gumersindok.

400 GAITA-JOLE KALEGOEN PLAZAN

Urte hauetan guztietan, unerik hunkigarriena zein izan den galdetutakoan, dudarik ez dute egin ez bata ez besteak. “400 gaitajole, denak batera, Elgoibarko plazan jotzera etorri zirenekoa, momentu hori ez zait sekula ahaztuko”, adierazi du Gumersindo Vilak. 2003an, Elgoibarko Casa Cultural de Galiza elkartearen 25. urteurrena aitzakiatzat hartuta, autonomia erkidegoko Galiziako Eguna ospatu zuten. Gaitajoleak hainbat lekutatik iritsi ziren Elgoibarrera. Herriko hainbat lekutan kalejirak hasi ziren eta denak Kalegoen Plazan elkartu ziren elkarrekin jotzeko.



JAI-EGITARUA

13 BARIXAKUA

19:30 Manuel Mariaren omenez antolatu den Galiziako Letren inaugurazioa. Galiziako muskuluen dastaketa doan.
20:00-21:00 Abanico orkestraren emanaldia.
23:00 Abanico orkestraren dantzaldia.

14 ZAPATUA

11:00 Galiziako produktu tipikoen dastaketa.
12:00 Banda de Gaitas de Piloño taldearen kalejira eta ekitaldia, feria gunean.
13:00 Bermut-dantzaldia.
18:30 Talde herrikoien ekitaldia, Kalegoen Plazan.
20:00 Galiziako produktu tipikoen dastaketa.
20:00-21:00 Abanico orkestraren ekitaldia.
23:00 Abanico orkestraren dantzaldia.
00:00 Gran Queimada Galega.

20 DOMEKA

11:00 Galiziako produktu tipikoen dastaketa.
11:30 Meza hildako bazkideen omenez, Elgoibarko San Bartolome parrokiaren. Mezatan, Banda de Gaitas de Piloño gaita taldeak parte hartuko du
14:30 Bazkari ofiziala Elgoibarko Galiza Kultur Etxearen egoitzan.
20:00 Galiziako Letren eguneko ekitaldien amaiera.

Kaleko margo lehiaketa zapatuan izango da eta datorren barixakutik aurrera margolan eta eskultura erakusketa

Egur arte tailerreko ikasleen lanak ikusgai jarri zituzten Kultur Etxean joan zen barixakuan, eta haur eta senideak gerturatu ziren batik bat inauguraziora. Bihar, zapatua, izango da erakusketa bisitatzeko azken eguna 18:30etik 20:30era bitartean.

Margoa erakusketa gelatik, ordea, kaleratu egingo du Eguurrek. Ez ditu ikasleen lanak kanpora aterako, baina biharko V. Kaleko Margo Lehiaketa antolatu du. 9:00etatik 10:00etara 18 urtetik gorako margolariek lehiaketarako izena eman beharko dute Kultur Etxeko sotoan. Herriko kale eta txokoetan margotzen aritu ondoren 13:00etatik 14:00etara bitartean sotoan bertan entregatu beharko dituzte lanak eta 14:30ean han egingo dute lehiaketako sari banaketa.

Lanak, bai saridunenak eta baita aurkeztu dituzten gainontzekoenak ere astelehenetik hurrengo zapatara bitartean, ikusgai egongo dira Kultur Etxeko sotoan.

Erakusketa

Bestalde, margoak ez du lekurik galduko herrian eta eskultura lagun duela erakusketa antolatu dute. Alberto Ramirez eta Jon Erratzuren lanekin. Maiatzaren 20tik ekainaren 5era ikusi ahal izango da astelehenetik barixakura, 18:30etik 20:30era eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik



Egur Arte tailerrekoen erakusketaren inaugurazioa.

20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Bi artista plaentxiarrek lan abstraktuak jarriko dituzte ikusgai *Abstraccion* izeneko erakusketan.

Alberto Ramirezek abstrakzio geometrikoa erakutsiko du bere lanetan kolorearen sintesia eginez. Eskulturak burdina forjatzen eta egur polikromatuekin egin ditu eta mugimenduan dauden eskulturak ere erakutsiko ditu.

Jon Erratzuk, berriz, obra abstraktuen serie bat aurkeztuko du erakusketan margolan handien bidez: lientzoa, lan grafiakoak, kolaxak...

Emusiken maila oneko taldeak

Zapatuan elgoibartar asko erakarri zituzten musika doinuek eta dantzek Maalako parkera. Emusik jaialdiaren baitan antolatutako emanaldian Teruelgo, Tarragonako, Alemaniako eta Suitzako lau talde aritu ziren eta haien maila onaz gozatu ahal izan zuten entzuleek. Elgoibartarrak ere musika tresnekin, kantuan eta dantzan fin moldatu ziren eta amaieran Emusik jaialdiko kantua abestu eta koreografia ere dantzatu zuten.



Literatura lehiaketa Institutuan


Arreiturre Institutuan Bosko Eguna literatura lehiaketako sari banaketa egin dute eta lehiaketara aurkeztutako lanekin liburu bat osatu ere. Argazkian Euskara Mintegiko bi irakaslerekin daudenak narrazioen atalean lehen saria irabazi zuen Irene Makazaga elgoibartarra eta bigarren saria jaso zuen Arkaitz Uranga mendararra dira. Olerkien atalean, berriz, Ander Arakistainek irabazi zuen lehen saria Batxilergoaren artean, eta Kristina Fidalgok DBH mailan.



Sigmako pasabidea erabili du Jesus Andrade artistak bere azken lanean

Jesus Cortiñas Andrade artista plastiko bilbotarrak *Transito-Igarotzea* argazki erakusketa jarriko du ikusgai Bilbon, maiatzaren 13tik 21era bitartean Uribitarte Galerian (Uribitarte kalea z/g, CCOO sindikatuaren egoitzaren parean). Erakusketan ikusi ahal izango diren hainbat argazki Elgoibarren atera ditu, 2014 amaieran berri zuten Sigmako auzoko oinezko pasabidean, hain justu ere.

Andradek bere buruari biluzik ateratako erretratu eta bideoekin osatu du erakusketa. Artistaren esanetan, Elgoibarren, lan egiten duela eta leku hori ezaguna zuelako aukeratu zuen kokalekua.



Gurasoentzako hitzaldi eta ikastaroak antolatu dituzte guraso elkarteek eta ikastetxeek

Elgoibarko hiru ikastetxetako gurasoek seme-alabei eragiten dieten hainbat gairi lotutako ikastaro eta hitzaldiak antolatu dituzte. Kalamua Guraso elkarteak bi egingo ditu. Teknologia berriei eta sare-sozialei buruzkoa lehena maiatzaren 17an eta kultur aniztasunaren gainekoa bigarrena, maiatzaren 24an. Biak 18:00etatik 20:00etara izango dira, biak Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Izena emateko kalamua@googlegroups.com helbidean.

Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseiluak antolatuta, berriz, maiatzaren 25ean 18:00etatik 20:00etara *Interneten arriskuak eta aukerak gaztetxoentzat* izeneko hitzaldia egongo da Ikastolako Moru gelan Iñaki Lakarra Hueziko irakaslearen eskutik. Batez ere, seme-alabak LH eta DBHn dituzten gurasoentzako da. Hitzaldia euskaraz eta doakoa izango da.

Arreiture institutuak eta hango Guraso Elkarteak, nerabeen gurasoentzako *Euskaraz ikasten duten seme-alaba eleanitzak. Zer zaindu behar genuke?* hitzaldia antolatu du. Iñaki Eizmendi Arsuaga gizarte hezitzailea izango da hizlaria eta euskarazko saioa maiatzaren 19an egingo dute 19:00etatik 20:00etara, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Mendaroko musika eskolan matrikulazioa zabalik

Ameikutz Mendaroko musika eskolan matrikula epea zabalik dagoela jakinarazi dute. Izena eman nahi dutenek maiatzaren 20ra arteko epea izango dute. Lau urterekin hasi eta adin mugarik gabe, musikaz gozatzera animatu nahi dute jendea musikarekin. Informazio gehiago jaso, zalantzak argitu edo izena emateko bertara gerturatu, ameikutz@gmail.com helbidera idatzi edo 619 306 493 telefono zenbakira dei daiteke.

Udal Bandaren kontzertua domekan

Hilabeteroko ohiturari jarraituz Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, 12:30ean, Herriko Antzokian. Txomin Mujikaren zuzendaritzapean honako piezak joko ditu Bandak: *Claveles de Granada* pasodoblea; *Lehenengo suitea Mi B-n*; *A Leroy Anderson Protrait*; *Madrid Schottis-a*; *Tico-Tico Samba* eta *Gallop*. Bakarlari lanetan Gorka Mujika arituko da Xilofonoan.

Antzerkia eta pailazoak ikusteko sarrerak asteleheneetik salgai

Mendaron bi ikuskizun egingo dituzte aurki: maiatzaren 28an *De Cuerpo Presente* antzerkia San Agustinen 22:00etan; eta ekainaren 3an Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren *Amalur* ikuskizuna, 18:30ean, Ikastolako jolastokian. Sarrerak ikuskizun bakoitzerako 7 eurokoak izango dira, baina pailazoak ikusteko kapotadun haur kotxeetako umeentzat doan. Maiatzaren 16tik aurrera jarriko dituzte salgai udaletxean, Morroskillon eta Rotetan.

Hitzaldia eta kontzertua Parrokiaren urteurrenean

Parrokiaren 300. urteurrena dela eta maiatzaren 16an Martxel Andriñuak *Amama, hitz egin iezadazu Jainkoaz* hitzaldia eskainiko du umeei fedearen transmisio esperientzia kontartzeko eta bi edo hiru amama ere izango dira. Hilaren 20an, berriz, Aita Donostia abesbatzak kontzertua egingo du 20:00etan Bartolome Deurenaren parrokiaren Javier Alberdiren zuzendaritzapean eta Gerardo Rifon organuan dela lehen zatian erlijio abestiak kantatuko dituzte eta beste hainbat kantu ezagun bigarrean.

Morkaikoren Eguna egingo dute zapatuan, seigarren urtez



Morkaikoren Eguna antolatu du Morkaiko mendi taldeak maiatzaren 14rako, seigarren urtez jarraian. Ohi legez, Elgoibarko Mendi Itzulia, itzulitxoa eta Finalista Eguna batera egingo dituzte. Elgoibarko mendi itzulia nagusientzako itzulia da. 38 kilometro ditu ibilbideak, eta partaideek 2.000 metro inguruko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Irteera 6:00etan izango da Kalegoen plazatik. Haurrentzako, berriz, itzulitxoa prestatu dute. Morkaiko mendira (520m.) igo, Aisialian indarrak berreskuratu eta Elgoibarrera jaitsiko dira berriro umeak eta gurasoak. 9:00etan izango da irteera Kalegoen plazatik, eta 10:00etan Idotorbetik. Azkenik, Finalista Eguneko domina banaketa ekitaldia 13:30ean egingo dute Kalegoen plazan. Gero elizako arkupeetan bazkaltzeko aukera egongo da. Iaz, 230 lagunek egin zuten Elgoibarko Mendi itzulia, eta itzulitxoan aldiz, 220 umeak eta 180 nagusik hartu zuten parte. Finalista Egunean, berriz, 151 gaztetxok jaso zituzten dominak.

Futbol 7 txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko eta Eibarko udal kirol Patronatuek antolatzen duten XIX. Bailarako Futbol 7 txapelketako izenemate epea irekita dago maiatzaren 26ra arte. 2000. urtean edo lehenago jaiotako gazteek parte hartu dezakete txapelketan. Hogei taldek eman dezakete izena, 80na euro ordainduta. Olaizaga kiroldegian edo Ipurua kiroldegian eman daiteke izena. Txapelketa maiatzaren 28an hasiko da, eta uztailaren 19an bukatuko da.



Gure ordezkariak emaitza onak lortu zituzten enpresen arteko lasterketan

Enpresen Arteko 9. Lasterketa jokatu zuten maiatzaren 8an Donostian. Iaz 2.000 lagunek hartu zuten parte 457 taldetan banatuta, tartean Elgoibarko eta Mendaroko hainbat enpresetako beharginek. Gainera, emaitza onak lortu zituzten hainbatek. Eroski enpresa ordezkatu zuten Agurtzane Arriola eta Pilar Arriola ahizpa elgoibartarrek lehen postua lortu zuten emakumezkoetan. Gizonezkoen dagokionez, Elgoibarko Shaeffler Iberia enpresako taldea seigarren postuan sailkatu zen.



Ezkerreko argazkian, Agurtzane eta Pilar Arriola ahizpak (erdian), Eroski taldearekin. Eskuineko argazkian, Alcorta enpresako saltakariak. Eskuineko argazkian, Alcorta enpresako saltakariak.

Lendinez eta Murua podiumean Larhongo kilometro bertikalean

Defi De La Rhune kilometro bertikala jokatu zen maiatzaren 7an Larhun mendian, Euskal Herriko Lasterketa Bertikalen Kopako lehen proba. Lizarpe taldeko Iban Murua eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrak bigarren postuan sailkatu ziren, gizonetako bata eta emakumeetako bestea. Gainera, Euskadiko Kopako liderra da Lendinez. Oier Ariznabarreta eta Adelaide Pantheon gailendu ziren Larrunen, eta biek ondu zituzten probako erre-



korrak. Kilometro bertikalen Euskadiko Kopako hurrengo bi probak Zegaman (maiatzak 20) eta Azpeitian (maiatzak 29) jokatuko dira.

Izeta, Garate eta 'Kapi'-ren azken partida



Alcorta Forging Group taldeak denboraldiko azken partida jokatu zuen aurreko zapatuan Olaizagan, Romo taldearen aurka. Elgoibartarrek 33-29 irabazi zuten partida, eta sailkapeneko seigarren postuan amaitu dute denboraldia, 18 partida irabazi, bi berdindu eta hamar galduta. Azken partida berezia izan zen taldeko hiru laguntzat, Sanlon urte mordoa egin eta gero taldea lagatzea erabaki dute-eta. Mikel Izeta taldeko ordezkariak eta Gorka Garate eta Asier Cordon *Kapi* jokalariek omenaldi txikia jaso zuten partidaren amaieran.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 1 – Ostadar 1 (Oho. erreg.)
 Armagiñak 1 – Elgoibar 3 (1. erreg.)
 Ordizia 3 – Elgoibar 1 (Jubenilak)
 Elgoibar 2 – Lagun Onak 1 (A Kadeteak)
 Ostadar 0 – Elgoibar 1 (Oho. inf.)
 Anaitasuna 2 – Elgoibar 1 (Inf. Txiki)
 Elgoibar 4 – Eibar 0 (Aleb. errend.)
 Arrasate 2 – Elgoibar 5 (Aleb. parte hartze)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 4 – Pinseque 5 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Viento Sur 51 – Don Jabugo Ensanche Erroibide 65 (Igoerako kanporaketa, joanekoa)

ESKUBALOAIA

Oñati 25 – Lauko 31 (Senior emak. Kopa txap.)
 Alcorta 33 – Romo 29 (Sen. giz.)
 Galdakao 20 – Gabaz 22 (Sen. giz. Igoera Fas.)
 Zarautz 19 – Tecnifuelle 26 (Jub. nesk. Gip. Ko.)
 Tecnifuelle 36 – Egia 16 (Jub. nesk.)
 Legazpi 18 – Beristain Banaketak 20 (Jub. mut.)
 Pneumax 34 – Pulpo 26 (Kad. nesk. Gip. Kopa)
 Zarautz 19 – Deca 34 (Kad. nesk.)
 Eibar A 36 – Bankoa 30 (Kad. mut.)
 Cometel 30 – Orioko Ikastola 22 (Inf. nesk.)
 Dario 29 – Urnieta Altuna 20 (Inf. nesk.)
 Hernani 9 – F. Ikus 14 (Inf. nesk.)
 H. Txarriduna 21 – Zalla Erreteg. 20 (Inf. mut.)
 Murgil 22 – Pulpo 23 (Inf. mut.)
 Sukia 10 – Pulpo 13 (Aleb. nesk.)
 Sukia 24 – Urola 7 (Aleb. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14
 10:00 Elgoibar – Antiguoko (Oho. inf.)
 15:30 Elgoibar – Eibar (Oho. jub.)
 17:30 Elgoibar – Oiartzun (1. erreg.)

Domeka, 15

09:30 Elgoibar – Zumaiako (Aleb.)
 10:40 Elgoibar – Zumaiako (Benj.)
 12:00 Elgoibar – Zumaiako (Benj.)
 12:30 Elgoibar – Aretxabaleta (Aleb. parte.)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 14

10:00 Ikus – Bera Bera (Inf. nesk.)
 11:15 Astigarraga – Egia Veltins (Kd. nesk.)
 16:30 Beristain – Aloña Mendi (Jub.mut.)
 18:00 Tecnifuelle – Bera Bera (Jub.nesk.)

Domeka, 15 (IMHn)

09:30 Sukia – Zarautz (aleb. mut.)
 10:30 Sukia – Zarautz (aleb. nesk.)
 11:30 Lauko – Leizaran (Senior emak.)

Titan Desert probari buruzko ikus-entzunezkoa Mendaron

Marokoko basarmotuan mendi bizikletaz egiten den Titan Desert probari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko dute Mendaroko San Agustin Kulturgunean, gaur, 22:00etatik aurrera. Proiektu solidario baten barruan joan ziren Marokora sei euskal herritar, tartean Igor Iraolagoitia mendararra, 'Basamortura eskuzabal' proiektuaren barruan, hain justu ere.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzen, sukaldari laguntzaile edo portal garbiketan egingo nuke lan. Interna edo orduka. 631 132 553

Adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. 609 365 980

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritu eta paseora ateratzeko prestutasun osoa. 646 931 162

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke, asteburuetan, orduka eta interna bezela aritzeko prest. 631 212 497

Etxeak garbitzeko prest. Prezio interesgarria. 649 782 967

Elgoibartarra adinekoak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Diplomatu eta informekin. 675 711 658

Adinekoak zaintzen, garbiketa lanak egiten edo eraikuntzan peoi lan egiteko prest. 632 459 224

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Goizetik arratsaldera zein orduka. Ospitalean ere zaintzen ditut gaixoak. Ikasketak dauzkat. 671 989 434

Nekazaritza lanetan arituko nintzateke. Jendea zaintzeko, garbitzeko, pizzak banatzeko... ere prest. 631 372 603

Adinekoak edo umeak zaintzen lan egiteko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 632 871 550

Orduka lan egiteko prest. Euskalduna naiz. 637 102 725 / 943 744 033

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egiteko prest. 632 229 972

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egiteko prest. 634 709 827 / 943 743 347

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egiteko prest. 632 408 771

Lan bila. Erreferentzia onak eta eskarmentua nagusiak zaintzen. Interna edo orduka. Paperak indarrean. 622 153 750

Lan bila. Interna edo goizetan orduka; astebukaeretan ere. Esperientzia eta erreferentziak. 633 808 931

Edozein lan hartuko nuke. Interna ala orduka. 612 545 143

Garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen lan egiteko prest orduka. 632 654 679

Sukalde laguntzaile, edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 631 562 380

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo egun osoan zehar. 616 608 781

Adinekoak zaintzen eta etxeko, elkarte- eta atarietako garbiketan lan egiteko prest. 617 571 210

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Aukeran, gaez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. 631 974 374

Ume edo nagusiak zaintzeko prest gaez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 632 573 554

Lan bila. Garbiketan, adinekoak eta umeak zaintzen... 631 418 130

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka zein interna. 628 738 472

Lan bila. Garbiketan, nagusiak eta umeak zaintzen... 602 573 072

Lanerako prest: Adinekoak zaintzen, portalak eta tabernak garbitzen... Orduka. 631 790 555

Eskaerak

Zerbitzaria behar da Mintxetako igerilekuko tabernarako. Ekainetik irailera bitartean. Bidali curriculuma helbide honetara: kamareroa@gmail.com

Esperientziadun sukaldaria behar da Elgoibarko taberna baterako. Bidali curriculumak taberlan@gmail.com helbidera.

Epe motzean, Ilunpe taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabiltza. Informazio gehiagorako, tabernan galdetu edo deitu 943 254 252 edo

645 599 810 zenbakietara.

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Logela bat edo biko. 602 490 595

GARAJEAK.....
Salgai

Garajeak salgai herriko erdigunean. 648 077 832

BESTELAKOAK.....

1966an jaiotako eta Pedro Muguruza ikaslearen ikasi genuen. Argazki baten bila gabiltza: eskola sasoiaren gure kurtsoa ikasleei ateratakoa. Argazki hori baldin baduzu, deitu. 650 776 861 (Rosa)

1996 urteko campingcara. 204.000 km. Turbo Diesel 2.500 cm3. 110 CV. 5,50 m. luzeera. Toldoa. Aire girotua. Bi txirrindarientzako euskarria. 3 laguntzako oheak. 5 toki homologatu. IAT-TV 2016ko uztaila. Asegurua, 2017/03/12. Garajearen gordea. 15.000€. 688605253 (Ibon).



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Nire komunitatean taberna batentzako den lokal bat dago. Komunitateko dokumentazioaren arabera, lokal honek kea ateratzeko hodia jar dezake argi-patitotik. Lokalaren azterketa egiten aritu dira, eta badirudi ezin dela argi-patitotik ke-aterabiderik egin komunitateko hainbat elementuri aldaketarik eragin gabe eta portaletik pasatu gabe. Beraz, portaleko sabaian, argi-patiora bitarteko hodi bat jarri beharko litzateke. Jakin nahi nuke ea komunitateak ezezkoa eman diezaiokeen hori egiteari.

Askotan ikusten ditugu lokal komertzialen onurarako elementu komunak aldatzeko aukerak ematen dituzten Komunitate-Estatutuak.

Estatutuek baimendutako kasuetan, kontuan hartu behar dugu estatutuak egiten edo onartzen direnean, baldin eta komunitateak horietan parte hartuko balu, komunitatearen erabateko onarpena jaso dutela. Bestela, etxebizitza eta lokalaren jabeen onarpena jaso zutela horiek erosi zituztenean.

Beraz, estatutuek komunitateko banakako jabeak lotesten dituzte, eta ematen duten baimenek izaera generikoa dute, elementu komunetan jarduteko interesa norbanakoena denean ere. Beraz, legezkoa litzateke lokalak ke-aterabidea egitea.


AHOLKUA: Bide-zor bat izanik, etxejabeek jarduera horiek errespetatu behar dituzte, beti ere kontuan hartuz eta adostuz, komunitatean ahalik eta kalterik txikiena eragi behar duela.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





ZORIONAK ZURI



Zorionak, **June**, zure haimahirugarren urtebetetzean, familia guztiaren partez. Askok maite zaitzugu.



Zorionak, **Ibon!** Gure mutirik 4 urte haundi eta mila zorion. Patxi pila bihoitzez, etxeko danon partez.



Zorionak, **Adur**, 7 urte maiatzaren 18an. Ondo pasa eguna. Familiaren partez.



Zorionak, **Aimar**. Gaur 2 urte. Muxuak guraso, aittitama, osaba-izeba eta lehengusu-lehengusinen partez.



Zorionak, **Naroa**, gaur 10 urte bete dituzulako. Muxu asko familia guztiaren partez.




Zorionak, **Laida**, asteazkenean 2 urte bete zenituelako. Muxu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Garazi**, politx hori! Bihar 7 urte beteko dituzu. Muxu haundi bat etxeko guztioren partez!



Zorionak, **Asier**, hilaren 17an 7 urte beteko dituzulako. Aitaxo, amaxo eta Unai-aren partez.



53 urte, alkarri BAI esan zenuela! Ez laga musuak emateari, eta datorren urtian, maiatzaren 11n, Aittola Zaharren alkartuko gera, berriz ere, maite zaituztegun esateko. Etxeak.



Maiatza benetan berezixa. 6, 8 eta 10. Hamar urteren ondoren zelako **familia** politxa. Amamaren eta izekoen partez, zorionak eta muxu bat benetan haundixa.

LAN DEIALDIA

GKN DRIVELINE enpresak **EKOIZPEN LANGILE** lanposturako pertsonen data basea eguneratu behar du.

Beharrezkoa: Erdi mailako edo goi-mailako heziketa zikloko titulua.

Interesatuak bidal dezakete CV eguneratua
ifactory@inress.com helbidera.

ORBE



PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIETAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

A. Garate

Era guztietako igeltzeritza lanak egiten dituzte

angelmgarate@gmail.com

Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

atzak
taberna

San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
www.uzurioptika.com

ESKAINITZA BEREZIA
eguzkitako betaurreko graduatuak

68€ tik hasita

PROGRESIBOAK

199€ tik hasita



13 BARIXAKUA

17:30 Kiribilen ikuskizuna. Maalan.

18:00-20:30 Odol-ematea. Osasun Zentroan

19:30 Galiziako letren jaiaren inaugurazioa. Muskuilu dastaketa eta dantzaldia. Aita Agirre plazan.

22:00 Bideo emanaldia: *Titant desert*. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

23:00 Dantzaldia Abanico orkestrarekin. Aita Agirre plazan.

23:00 Kontzertua: Quaoar. Sinuose. Sarrera: 3 euro. Kultur Etxeko sotoan.

14 ZAPATUA

6:00 Morkaikoren Eguna: Elgoibarko Itzuliaren irteera. Kalegoen plazatik.

9:00 V. Kaleko Margo Lehiaketa. Izen-ematea, Kultur Etxeko sotoan.

9:00 Elgoibarko Itzulitxoaren irteera. Kalegoenetik. 10:00etan Idorbetik.

10:00 Bizi Poza txarangaren 25. urteurrena: Diana Elgoibarko dultzaineroekin. Mendaroko Azpilgoetatik.

11:00 Bizi Poza txarangako partaide izan direnen hamaiketakoa. Aitz Beltzen.

11:00 Galiziako produktu tipikoen dastaketa. Aita Agirre plazan.

12:00 Bizi Poza txarangarekin kalejira. Aitz Beltzetik hasita (Mendaro).

12:00 Banda de Gaitas de Piloño taldearen kalejira, ekitaldia eta bermut dantzaldia. Aita Agirre plazan.

13:00 Elgoibarko Itzulikoen bazkaria. Elizako arkupeetan

13:30 Finalista Eguneko dominen banaketa. Kalegoen plazan.

14:00 Morkaiko Eguneko umeen bazkaria. Elizako arkupeetan.

15:00 Atxutxiamaikakoekin jolasak Kalegoen plazan.

15:00 Bizi Poza txarangaren urteurreneko bazkaria. Luzaiden (Mendaro).

17:00 Morkaiko Eguneko argazkia (partehartzaile eta mendizaleak). Kalegoen plazan.

18:30 Banda de Gaitas de Piloño eta Haritz Euskal Dantzari Taldea. Kalegoen plazan.

19:00 Poteoa Los Incansables txarangarekin. Mendaroko Herriko Enperantzatik.

20:00 Galiziako produktu tipikoen dastaketa. Aita Agirre plazan.

23:00 Dantzaldia Abanico orkestrarekin. Aita Agirre plazan.

23:00 Bakarizketa: *Chistroshows premiun*. Felix El Gato. Tantaka tabernan.

23:30 Erromeria Bide Batez taldearekin. Mendaroko Herriko Enparantzan (euria eginez gero, frontoian).

00:00 Queimada. Aita Agirre plazan.

15 DOMEKA

11:00 Galiziako produktu tipikoen dastaketa. Aita Agirre plazan.

11:30 Meza, hildako galiziarren omezez. Bartolome deunaren parrokiari.

12:30 Kontzertua: Elgoibarko Udal Musika Banda. Herriko Antzokian.

14:30 Bazkari ofiziala. Galiza Kultur Etxearen egoitzan.

16 ASTELEHENA

20:00 Hitzaldia: *Amama, hitz egin ie-zadazu jainkoaz*. Martxel Andrinua. Musika Eskolako auditoriumean.

17 MARTITZENA

18:00-20:00 Gurasoentzako formazio saioa: Sare sozialak eta teknologia berriak. Kalamua guraso elkarte. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19 EGUNA

17:00 *Gu ere bertsotan*. Mendaroko llastolako hurren bertso jaialdia. San Agustin Kulturgunean.

BENETAKO BIZITZARAKO
HIPOTEKARIOAK

EURIBOR
+ % 0,85

Lehen urteko ITNa: %1,30.
UTBAldakorra: %1,229*

CA **bankoa**
CREDIT AGRICOLE



20 BARIXAKUA

18:30 Margo eta eskultura erakusketa: Al-berro Ramirez eta Jon Erratzu. Ekainaren 5era arte. Astelehenetik ostiralera, 18:30etik 20:30era. Larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Argazkia, Sebas Etxaniz aske lagatzeko eskatuz. Kalegoen plazan.

19:30 Bizi Poza txarangarekin kalejira, Mendaroko Trinitate jaiak hasteko.

20:00 Kontzertua: Aita Donostia abesbatza. Bartolome Deunaren parrokan.

Zinea (Herriko antzokian)

'Kiki el amor se hace'

13 Barixakua, 21:30
14 Zapatua, 19:00 eta 22:15
15 Domeka, 19:00
16 Astelehena, 21:30

'Oker' (Euskaraz)

15 Domeka, 16:30

Urrian hildakoak

- Manuel Jauregi Arriola

92 urte, apirilak 1

- Jesusa David Ibagutxi

91 urte, apirilak 1

- Justa Lopez De Prado

67 urte, apirilak 4

- Gregorio Saiz Hervias

74 urte, apirilak 6

- Jose Luiz Ajobita Unzueta

89 urte, apirilak 7

- Josefa Belaustegi Urkidi

87 urte, apirilak 8

- Benita Calleja Ruiperez

102 urte, apirilak 9

- Pilar Salaberria Gurrutxaga

96 urte, apirilak 11

- Antonia Molinuevo Gomez

92 urte, apirilak 13

- Manuel Rey Quiroga

78 urte, apirilak 28

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 /

16:00 - 20:00

09:00 - 22:00

13 Barixakua ETXEBERRIA

14 Zapatua FERNANDEZ

15 Domeka FERNANDEZ

16 Astelehena YUDEGO

17 Martitzena ORUESAGASTI

18 Eguaztena BARRENETXEA

19 Eguena IBAÑEZ

20 Barixakua FERNANDEZ

22:00 - 24:00

Astelehenetik domekara

GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)

Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza, 4 Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384



ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

www.funerariaetxeberria.com



Eire Vila



Mikel Olaizola



Landare igokarien tankeran egin dut aurrera, gorantz eguzki bila; edo inguruetako pinuak bezala, azkar eta etenik gabe, ingurua itoz horretarako, beste ezeri sortzeko aukera ukatuz eta trukean apenas itzalik itzuliz. Zabalean lekurik ez eta kabitu ezinik luzetara hazi nintzen, bertikalean, lehertuko ez banintzen.

Zuzen, zorrotz, zehatz izan naiz orain arte. Baina agertu da bizitzaren kurba eta ohartu gehiago ez naizela haziko, ez behintzat lehen bezala. Hartzen nauen lurak baino ez daki zeren gai-

nean eraiki naizen, atzitu ezin dudan zeruak baino ez du ulertu zer nahi nukeen izan, nora nahi dudana heldu. Bien artean bizi naiz, kondenaen eta ametsaren artean, beldurrek eta desioek tiraka.

Ez naiz bakarra ere, alafede! Dorrez inguratuta nagoela ohartu naiz oraintsu, inork seinalatutako aurreari begira, tente gaudela demostratuz. Baina sendoa dirudien oro ez da horrenbeste, edo sendoegia, zurruna da eta horixe agian edozein lurrikara txiki horretan arrakalak sortu izanaren arrazoia.

Biluzten hasteko garaia dugu, erorien zerrendara igaro nahi ezean. Teilatutik hasi eta zimenduetara, ekingo diogu eraisteari?

“Zabalean lekurik ez eta kabitu ezinik luzetara hazi nintzen”



Pakita Iruretagoyena Elustondo

2016ko maiatzaren 1ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Mundualdi hau igaro dezu
modu xume apalean,
nola erreka kantari doan
bailararen magalean.
Zenbat freskura banatu dezun
mendian eta kalean,
baita errotan lan egin ere
zure eginahalean.
Orain atsedean hartu ezazu
itsas urdin zabalean.*

Zure familia



Amor Garcia Fernandez

2016ko maiatzaren 9an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Miguel Angel Arriola Aizpiri

2015eko maiatzaren 9an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza
izango da, domekan, maiatzak 15, goizeko 12:00etan Mendaroko
Azpilgoetako parrokian. Joango zareteno aldez aurretik eskerrak.

Pakita Odriozola Agirrebeña

Jenaro Garateren, 2011/02/11, alarguna



*Lore fin eta leun moduan joan zara.
Guztionzat maitasuna isurtzen zuen
bihotz xume harekin oroituko zaitugu.
Beti gurekin egongo zara.*

2016ko apirilaren 16an hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta Eibarko Pio X-eko
hileta elizkizunera joan izana.

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

AROSZTEGIAK

 **iraolagoitia**

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

MAR
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheha
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



BIENA S.L.
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Armatagia Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

Ulazia

AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P

943 740 547



ELEKTRIZITATEA

iparelek s.l.

elektrizitatea

Kiliman hiribidea, 1 - Mendara
943 530 358

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

ELECTRICIDAD AZPELETA

San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzajk@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 625 555 999

electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC beheha
Tel.: 943 202 200
Fax: 943 205 045
20800 EIBAR

Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 035
20850 MENDARA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA

E. ARANDIA

ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 beheha - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko koordinazioa.
Pladurarekin ere lan egiten dugu.

IGELTSERITZA

CAMILO ALVAREZ

Jardiñeta, 25 beheha
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA

SANTANA

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheha
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

PAGOERROTA ITURGINTZA

Herriko Enparantza, 10 beheha
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

ongi iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

Fontanería Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheha B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

TELLABIDE

ITURGINTZA



Azpigoeta 7 beheha - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

ZUBIZARRETA
instalazioak

Ubitarte plaza, 5 beheha
Elgoibar

943 740 789
650 586 144



PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tailler@pagoagasa.com

ELGOIBAR

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida